

## GRAN PARADISO

Casimiro Bengoetxea

**A**RRATSALDEKO bostak dira, une batez zer ari naizen galdetzen diot nere buruari, aurrera begiratu eta jende gehiago ikusten dut; bere motxilekin, eskiekin ... Badirudi denok helburu berdinak ditugula. Urtero horrelako irteera bati hasiera ematen diodanean gauza bera pentsatzen dut; buelta eman eta etxera bueltatu. Baina ez, bakarrik une bateko


pentsamenduak dira, denbora asko egon naiz egun hau iritsi zedin eta egia esan gustura sentitzen naiz, baita ere zertxobait urduri.

Arratsaldea zoragarria da, benetan denok espero genuen, edo behintzat nahi, horrela astea gure abentura hau. Urte asko dira trabesi eskia praktikatzen, baina aurtengo irteera hau berezi samarra dela esan daiteke;


– Alde batetik taldea haunditu dugu, hasiera batentan sei edo zortzi bat ginen. Aurten hamaika.

– Bestetik 4.000 metrotako tontor bat igotzea saiatuko gara, bat baino gehiagorentzat zer esanahi inportantea, zeren eta egunero ez da agertzen 4.000 metrotako tontor batera igotzeko posibilitatea.

– Eta azkenik, zergatik ez esan, taldean bi jenerazio elkartu dira; bi aita, bere bi semeekin.



Cumbre del Gran Paradiso.







**Ascendiendo hacia el refugio Vittorio Emanuele.**

**En fila de uno y disciplinadamente, vamos dejando el ref. Vittorio Emanuele para ir acercándonos a la Tresenta.**



Lehendabiziko eguneko ibilaldia ez da luzea izaten, ez eta gogorra, toma de kontaktoko etapa bat baizik. Helburu bezala Vittorio Emanuele (2.732 m.) aterpera iritsi. Beraz motxilak sorbaldan dijoaztela eta pozez eta alaitasunez bagoaz piskanaka.

Vittorio Emanuelen jende ugari elkartzen gara, dirudienez leku hau oso tradizionala da eta beti jende asko dabil. Eskerrak garaiz deitu genuela eta gure erreserba egin, bestela auskalo zer gertatuko zen. Aterpe honetan bi egun igarotzeko asmoaz gatoz; lehendabiziko egunean Tresenta gailurrera (3.609 m.) eta bigarrenean Gran Paradisora (4.061 m.) Eta gainera orden honetan, horrela gure gorputzak aklimatzen joango dira eta, baina aterpeko zaindariarekin hitzegin eta gero ordena aldatzen dugu; badirudi bigarren egunerako eguraldia okerragoa izango dela eta.

Afari bero bat hartu ondoren, apenas ez da denborarik geratzen gauza askorik egiteko; motxila prestatu, materiala, erropa ugari zeren eta 4.000 metrotara suposatzen dut giroa nahiko freskoa izango dela, eta segituan oheratzen gara.

Burua altxatu eta aurretik taldeko bi kide ikusten ditut jende gehiagoren artean, atzeruntz panorama antzekoa da. Dirudienez, aterpean geunden guztiak Gran Paradisoruntz goaz. Hotz handia egiten du eta denak karabanan goaz. Azkeneko zatian eskiak utzi eta kranpoiak ezartzen ditugu; elurra nahiko gogorra dago eta gainehera azkarrago gabiltza.

Tontorrean Ama Birjina batek itxaroten gaitu, jende asko gaude eta segurtasunagatik txanda itxaroten dugu zeren eta Ama Birjinaraino iristeko eskalada txiki bat egin

**Por fin avistamos la Tresenta. El día es bueno y vamos confiados en llegar hasta la cumbre.**

Fotos: Inaki Bengoetxea Sorozabal





**En el último tramo nos ayudamos de los crampones, piolet y bastones.**

**La afición por el esquí de montaña va pasando de padres a hijos; en la cumbre de la Tresenta Iñaki y Casimiro con Jon e Iñaki.**

behar da, eta situazioa piska bat konplikatzeko da.

Tontoretik ikusten dudana deskribatzeko ez ditut hitzak aurkitzen; eguna zoragarria da, nahiz eta hotza handia egin (termometroak 20° zero azpitik markatzen du) eta mendiz inguraturik aurkitzen gara. Derrigorrezko argazkiak atera eta segituan beheruntz goaz.

Arratsaldean aterpearen terrazan gaudela dena poza eta alaitasuna da; komentario ugari daude, bakoitzak bere anekdotak kontatzen ditu. Piskanaka piskanaka jende gehiago iristen ari da aterpera eta denak objektibo berdina lotuta: Gran Paradisoko tontorraraino igo.

Baina gauzak ez dira hemen bukatzen, gure ibilaldiak hasi besterik ez du egin eta oraindik beste bost egun geratzen zaizkigu aurretik. Beraz segituan hasten dira hurrengo egunerako prestakizunak.

## Tresenta

Goizeko 8:00. Eguraldia guztiz oskarbi, termometroa badirudi indarrak gabe geratu dela zeren eta ez da 15° zero azpitik igotzen. Gaur Tresenta tontorra (3.609 m.) igotzeko asmoaz iritsi goaz. Lehendabiziko zatia, leporaino iritxi arte, oso polita da eta teknikoki ez du zailtasunik; eguraldi ona denez argazkiak ateratzeko aprobetxatzen dugu, bideo piska bat ere filmatzen dugu.

Ezkerraldean Gran Paradisoko pareatik eta ezkumaldean Ciarforon tontorra bere 3.640



metroekin ditugularik bagoaz piskanaka Tresentaruntz. Gaur bakarrik goaz, eta horrek bidea guk irekitzea suposatzen du; beraz bat bestearen atzean jarrita, txandaka eginten dugu lana. Horrela, piskanaka piskanaka eta bakoitza bere txanda errespetatuz, Tresenta aspian jartzen gara. Hemen zertxobait jan, eskiak utzi eta kranpioiak jarrita bagoaz goruntz.

Denboraz ondo gabiltzanez eta eguraldia ona denez, eguzkiak ere zertxobait berotzen du, tontorrean lasaitasunez eta patxaraz hartzen ditugu gauzak; argazkiak, ur tragoxka bat, ingurunea ikusi ... Eta gainera horrela ere elurrari denbora ematen diogu bere transformazioa jasan dezan, jeisterako momentua iristerakoan eskiatzeko ondo egon dadin.

Jaitsiera luzea da eta gainera oso zabala da, bakoitzak bere alderdia hartuz bagoaz aterperuntz berriro; arratsaldean eguzkia sartu baino lehenago Vittorio Emanuelen terrazan gaude garagardo bat eskutan eta gaurko anekdotak kontatuz. Oraingo ezin gara kejavu, gauzak espero genituen bezala dijoazte eta etxean pentsatu genuen guztia egin dugu. Bihar aterpe hau utzi eta Fourazeko lepotik igarota Città de Chivasso aterpera (2.604 m.) joango gara. Etapa honek teknikoki ez du zailtasunik azaltzen, eta ez dago desnibel handirik.

Fourazeko lepo aspian gaudela eragozpenak aurkitzen ditugu, egia esan jeiki garenetik azaldu dira zailtasunak; eguraldia guztiz aldatu da, apenas ez da ehun metrotara ikusten, eta gauean zehar egin duen elurteak aurreko egunean talde batek egin zuen bidea estali du.

Igaro behar dugun hegala elurrez oso kargaturik azaltzen denez, eta elurmeta bat probokatuko dugulakoan, Fourazeko lepora ez joatea erabakitzen dugu. Soluzioa Ponterra jeitsi (kotxeak utzi genituen herrixka) eta hemendik Città de Chivassora igo. Azken finean modu honetara ere gure ideiak aurrera dijoazte, nahiz eta erabaki hau hartuta gaurko etapa asko luzatu, ez dago beste irteerarik.

## Basei

Arratsaldeko 17:30. Gaur arte denak batera ibili baldin bagara, gaur guztiz sakabana-turik goaz, etapa luzea da eta aterpera iristeko gogoak daude. Taldeko azkena 18:30tan iristen da Città de Chivassora, behintzat bakarrik gaude aterpean. Bere zaindaria oso alaia da eta hitzegiteko gogo askorekin aurkitzen dugu. Badirudi ingurune hauetatik ez dela inor igaro orain dela dexente.

Sabela ondo beteta eta Alexandroekin kafea hartuta (kopatxoren bat ere norbaiten eskutan agertzen da) zeintzuk diren gure ideiak hurrengo egunetarako komentatzen diogu. Berak ere bere kriterioak komentatzen dizkigu.

Hurrengo goizean Alexandro agurtzeak pena ematen dit, lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiot gugatik arduratu zelako; goiz osoa bere prismatikoeekin zelatan egon zen eta Basei lepora iritsi ginenean Benevolo aterpera telefonoz deitu egin zuen, gure taldea jadanik lepoan zegoela esanez eta ordu pare bat geroago aterpera iritsiko gine-la zihurtatuz. Horrelako jendea eskertzekoa da.

Beraz azken aurreko etapak Città de Chivassotik, Benevolo aterperainoko (2.285 m.) tartea osotzen zuen. Basei lepotik, Basei





**Una vez recuperados los esquís vamos gozando de la magnífica bajada. Detrás, la Tresenta.**

**Nos acercamos hacia la Punta Basei después de dejar las mochilas en el collado.**

**Acompañados por el buen tiempo, iniciamos la última etapa: Benevolo - Gran Vaudala.**

tontorra (3.338 m.) gertu ikusten genuenez, talde erdia tontorreruntz abiatzen da beste erdiak lepoan itsarotzen zuen bitartean. Eguerdialdean gutxi gora behera Basei tontorrean aurkitzen gara, eta hemendik Benevolo aterperaino iristeko jaitziera luze luze bat besterik ez zaigu falta. Ez dakit, edo behintzat ez dut gogoratzen horrelako jaitziera hain luzea inoiz egin dudarik, benetan asko gozatu genuela eta gainera elurra inoiz baino hobeagoa aurkitu genuen; bat baino gehiagok bere trebetasunak erakutsi nahian koskorreko galantak jaso zituen.

### Gran Vaudala

Benevolo aterpean, berriro ere jende ugarrarekin topatzen gara, Città de Chivasson aurkitu genuen pakea inbidiatzen dugu. Hasiera batetan, aterpe honetan bi gau igarotzeko ideiazkin etorri ginen, baina hainbeste jende ikusita, aterpea nahiko txikia



hainbeste jenderentzat, hurrengo egunean Gran Vaudala (3.272 m.) tontorra eta gero Rhemes Notre Dame herrira jeistea erabakitzen dugu. Egia esan barrutik nahiko aseturik gaudela dirudi eta gainera zibilizazioarekin topatzeko gogoak hasiak dira.

Hurrengo goizean, motxilan zama gutxi sartuta bagoaz Gran Vaudalaruntz, eguna oskarbi dago, nahiz eta hotza handia egin ondo arropaturik bagoaz gure azkeneko helburuntz.

Goiza ondo dijoa baina behin lepoa igaro eta azkeneko metroak besterik falta ez zaizkigunean lainoa azaltzen da eta eguraldia guztiz aldatzen da. Ez da deus ere ikusten, eskerak denbora dugula tontorreraino iristeko. Aste osoan eguraldi oso ona eduki baldin badugu (goiza bat kenduta) azkeneko egunean gauzak guztiz aldatzen zaizkugu, beraz pazientzi asko eta poliki poliki bagoaz berriro ere Benevoloruntz. Behin Benevolon gauza guztiak jaso eta Rhemeseruntz jeistea baino ez zaigu geratzen.

Atzean geratu da sufrimendu eta izardi guztia Rhemesera iristeko bide oso polit batek eramaten gaitu. Azkeneko zatia baso baten zehar goaz, marmotaren bat ere dukusagularik.

Aste osoan egin duguna bururatzen nijoan bitartean, lehendabiziko etxeak agertzen dijoaz, badirudi hainbeste prestakuntza egin ondoren eta hainbeste egun itxaron eta gero Gran Paradisora etortzeko, amets zoragarri honi bukatzeko txanda iritsi zaiola uste dut.



Fotos: Iñaki Bengoetxea Sorozabal



## GRAN PARADISO. DATOS PRACTICOS

### Aproximación:

Punto de partida, el pueblecito de Pont. Distancia kilométrica desde Donosita, aproximadamente 1.000 kilómetros. El recorrido más lógico en invierno y quizás el único será llegar hasta Chamonix, atravesar el túnel del Mont Blanc hacia Italia, pasar Courmayeur y llegar al valle autónomo de Aosta. Antes de llegar al pueblo del mismo nombre, tendremos a nuestra derecha la desviación hacia Valsavareche que nos llevará a Pont.

### Refugios:

Hoy en día, que se ha conseguido que en la mayoría de los refugios tanto de Alpes como del Pirineo dispongan de teléfono, lo recomendable es hacer las reservas.

Detallamos los teléfonos a los que nos referimos en el artículo;

- Ref. Vittorio Emanuele (0165) 9520/809993 (108 plazas)
- Ref. Città de Chivasso 07/39 124953150 (45 plazas)
- Ref. Benevolo (0165) 906143

### Cartografía:

Nosotros usamos un mapa 1/50.000 de la marca KOMPASS, que pertenece al n.º 86 de la colección y el n.º 101 del Instituto Geográfico Central Italiano en la escala 1/25.000 que, aunque es más amplio no tiene muy bien representados los relieves, principalmente los glaciares, lo que puede dar lugar a confusiones.

### ITINERARIO

Como en todos los macizos, muchos son los recorridos y variantes que se pueden hacer según las facultades, el nivel técnico y las ambiciones de cada uno.

Nuestro plan, en origen nos llevaba en la segunda parte de la semana hacia el Este, pero un refugio particular cerrado en su parte invernal nos hizo dirigirnos hacia el Oeste.

#### Día 1.º:

Como llegamos al mediodía a Pont, después de picar algo, ascendimos de tarde por el camino de verano hasta el Ref. Vittorio Emanuele. De 2 a 3 h.

Refugio antiguo, bien atendido, malos servicios higiénicos para más de 100 plazas. Comida aceptable, Pertenece al Club Alpino Italiano, Sección de Turin. Precio media pensión 45.000 liras.

#### Día 2.º:

Ante la inseguridad del pronóstico del tiempo, cambiamos el orden de las ascensiones y aseguramos el Gran Paradiso. Subida mantenida, con un bonito escenario alpino y glaciar. Ojo con la rimaya final!. Buena nieve en un descenso de 1.329 m. de desnivel. Tiempo completo 8 h.

#### Día 3.º:


La meteo no ha acertado, pues el día amanece también raso y con mucho frío, como ayer 12º.

Vamos hacia la Tresenta. La última pala muy helada y con bastante pendiente, con crampones. El panorama espléndido al estar situada esta cima entre el Gran Paradiso y el Ciarforon y poder observar sus glaciares colgados. Etapa sencilla que se puede hacer en 6 horas.






GRAN PARADISO



Aspecto de la terraza del ref. Benevolo.

**En esta zona las posibilidades de practicar nuestra disciplina son interminables: estamos rodeados de montañas y además recubiertas de mucha nieve.**



**Día 4.º:**

El tiempo variable en la primera parte del día, nos obliga a descender a Pont, para llegar al Ref. Città de Chivasso por otro valle en vez de acceder por el Collado de Punta Foura.

Hermoso descenso hasta Pont, pero luego la subida por el Valle de Nivole se nos hace eterna. Las 2 horas que nos anuncian en Pont se convierten en 4 y el total de la etapa en 9.

Refugio también del C.A.I. Alexandro el guarda, encantador, nos obsequia con una de las mejores cenas así como el desayuno, que recordamos en un refugio. Por contra, no disponía de agua corriente al estar el edificio casi sepultado por la nieve.

La demostración del guarda en el centro del comedor, de cómo había que hacer las "aguas mayores" en un cubo, habiendo colocado previamente una bolsa dentro, cómo se doblaba y se tiraba a la nieve, es inolvidable. Media pensión 43.000 liras.

**Día 5.º:**

Peligrosa ascensión al collado Basei por un corredor completamente avalanchoso lo que nos obligó a echar las tablas a la mochila y extremar las precauciones. Fácil subida a Punta Basei y maravilloso panorama hacia el valle de Centelina que desemboca en el Ref. Benevolo.

Buen descenso por el glaciar de Lavassey. Hoy nos ha costado 8 horas. Refugio del C.A.I. de Turin. Plazas muchas, pues había un mundo. Estaba a tope. La mayoría de los clientes no hacen la travesía sino que se desplazan en coche de valle a valle para hacer las cumbres con esquís. Buen trato y buena cena. Media pensión 47.000 liras.

**Día 6.º:**

Preciosa ascensión al Gran Vaudala que se puede hacer con poco peso, volviendo al refugio o bien directamente descender al Valle desde la cumbre.

Llegamos hasta las mismas casas de Rhêmes Notre Dame con esquís, tardando en total 7 horas.

Recuperamos los coches que estaban en Pont y damos por terminada nuestra travesía.

**Actividad realizada del 9 al 14 de mayo de 1994 por:** Antxon BURCIO, Josu ALONSO, Juan Jose CARMONA, Imanol ORMAZABAL, Alberto ANCIN, Ramón CERIO, Jesus MARI ALQUEZAR, Iñaki BENGOTXEA SOROZABAL, Jon BENGOTXEA AYESTARAN, Iñaki BENGOTXA BUSTO y Casimiro BENGOTXEA BUSTO.



Fotos: Iñaki Bengoetxea Sorazabal

**Una parada para reponer fuerzas y seguimos. A nuestra espalda el pico Traversiere.**